6785

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 3koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzietarako Aretoan, 1119/08-2 Ohiko prozedurari dagokion Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan interesa izan lezaketenak deitzen dituena. Errekurtso hori Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko maiatzaren 27ko Ebazpenaren kontra jarritakoa da. Azken Ebazpen honek Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko Agente Kategorian sartzeko hautaketa prozeduran aurreikusitako Ikastaroaren prestakuntza-aldiari dagokionean, errekurtso egileak egindako baliokidetza eskaera atzera botatzen du. Ikastaro horren hasiera Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko otsailaren 25eko Ebazpenaren bitartez erabaki zen.

Goian azaldutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa (1119/08-2 zenbakiko Ohiko Prozedura) aurkeztu da eta Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietako Epaitegiak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatuta, eta Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2008ko azaroaren 3a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

6785

RESOLUCIÓN de 3 de noviembre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo perteneciente al procedimiento ordinario 1119/08-2 que se sigue en la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, contra la Resolución de 27 de mayo de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se desestima la solicitud de convalidación realizada por el recurrente, en relación con el Curso de Formación previsto en el procedimiento selectivo para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz, cuyo inicio fue determinado mediante Resolución de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco de 25 de febrero de 2008.

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (procedimiento ordinario 1119/08-2) identificado en el encabezamiento, y habiéndose solicitado por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 3 de noviembre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.